

Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Ekimeneko Ikastetxeen Lan-Hitzarmenerako ELA, STEILAS, CCOO, LAB eta UGT Sindikatuen Plataforma Bateratua

Iraupena
2017-2019

Ultraktibitatea bermatu eta erreformen aurkako klausulak sartu
(mugikortasuna, hitzarmena ez aplikatzea, malgutasuna...)

1

Sailkapena eta lanbide kategorien birdefinizioa

2

Azpikontratazioa

- * ETERNALIZATUTAKO langileak enpresaren langile propioak bihurtu.
- * Lantokian lanean dauden langile guztiei Hitzarmena aplikatu beharra.

3

Antzinasuna

- * Antzinasunaren kontaketa hitzarmenean erregulatu.

4

Lanaldia

- * **Irakasleak:** asteko 32 ordu ikastetxean eta presentziarik gabeko 70 ordu urteko aitortuko dira. Norberaren lanerako asteko 5 ordu osagarri bermatuko dira.
- * **Administrazio eta Zerbitzu Pertsonalarentzat:** urteko lanaldia 1.535 ordukoa.

5

Oporrak

- * **Irakasleak:** Urteko 45 egun jarraian.
- * **Administrazio eta Zerbitzu Pertsonalarentzat:** indarrean dagoen hitzarmenak jasotako udaldiko oporrak jarraian doan astebetez luzatu.

6

Baimenak

- * Hitzarmenak jasotako baimenak eta eszedentziak eguneratu. Dietei dagokienez, galdutako eroste-ahalmena berreskuratu.
- * Lanaldi osoko kontratua zatikako kontratu bihurtzeko aukera itzulgarria, eskubide gisa erregulatu.
- * Urte sabbatikoak: Hitzarmenak jasotzen dituen bestelako baldintzetan zentroarekin adosteko aukera izan.

7

Soldatak

- * 2017. urtea: KPI + % 2 * 2018. urtea: KPI + % 2 * 2019. urtea: KPI + % 2
- * Hitzarmenean jasotako osagarriak (hirurtekoak, pizgarriak...): galdutako eroste-ahalmena berreskuratu.
- * DBH1-DBH2 ekiparazioa. 2 urtetan lortzeko planteamendua (% 50 1.an, 2018an, eta osoa 2.ean, 2019an).

8

Haur Hezkuntza Lehen Zikloa

- * Irakasle taldean sartzea inolako baldintzarik gabe, xede guztietarako.
- * Haur Hezkuntzako 1. zikloko eta 2. zikloko maistren arteko ekiparazioa. Beraz, lehen zikloko maistren urteko lanaldia 100 ordu murriztu, datozen 2 urteetan 1.252ra heltzeko (50 urteko).
- * Epe ertainean ziklo honetan ari diren langile guztien ekiparazio helburu, datozen 2 urteetan TEJlen urteko lanaldia 100 ordu murriztu, 1.520 heldu arte (50 ordu urteko).
- * Ordu osagarriak aitortu TEJI eta laguntzaileentzat. Ordu osagarri 1 eguneko.
- * Ikastetxeko prestakuntza saioetan eta klaustroetan parte hartzeko aukera bermatu gainontzeko irakasleen parean ordu osagarrien bidez.
- * Beharrezko titulazio izanez gero, kontratatua izan den kategoriarako edo ikastetxean sortzen den beste edozein kategoriatako bakanteetan promozionatzeko lehentasunezko eskubidea eduki.

9

Hezkuntza Laguntzarako Espezialistak

- * Irakasle taldean sartzea eragin guztietarako.
- * Lan- hitzarmenean funtzioak deskribatu eta mugatu xehetasunez.
- * Ordu osagarriak. Koordinatzeko, ebaluatzeko, prestakuntzarako...
35 / 30 orduko lanaldia 5 ordu osagarri.
25 / 20 orduko lanaldia 4 ordu osagarri.
15 / 10 orduko lanaldia 3 ordu osagarri.
- * Urteko lanaldia irailaren 1etik ekainaren 30era banatu era erregularrean.
- * Gainontzeko irakasleak legez, ikastetxeko prestakuntza saioetan eta klaustroetan parte hartzeko aukera bermatu ordu osagarrien bidez.
- * Beharrezko titulazio izanez gero, kontratatua izan den kategoriarako edo ikastetxean sortzen den beste edozein kategoriatako bakanteetan promozionatzeko lehentasunezko eskubidea eduki.

10

Lanbide Heziketa

- * Indarrean dagoen legedia bete eta araudia lan-hitzarmenean erregulatu.
- * Lan hitzarmeneko mahaian ikasturteko lehenengo bi hiru hilabetetako lanaldiaren banaketa irregularra adostu, praktiken jarraipenean betetako orduak aintzat hartuz.
- * Praktikako tutoreari eta Lantokiko Prestakuntzako koordinatzaileari esleitutako orduak zehaztu.
- * Irakaskuntza laguntzarako kredituari eta ikasleen praktikei dagozkien, zuzendaritza, langileak eta euren ordezkari legalak ekainean bilduko dira hurrengo ikasturterako dagozkion orduan finkatzeko.
- * Ziklo berrian irakasteko izendatzen duten langileari prestakuntza eta erabiltzeko orduak eskaini.
- * Arazu gabeko Prestakuntza: hitzarmenak jaso behar du ikastaro batengatik zenbatu daitezkeen orduak ikastaroaren ordu lektiboen % 150 izango direla eta, orduaren balioa horretarako kontratatua izan den langilearen soldata gordina zati hitzarmeneko urteko lanaldiarena.

11

Barne promozioa

- * Barne promozioa ezartzeko araudia adostu.

12

Kontratazioak

- * Langileak kontratatzeke orduan gardentasuna bermatzeko urratsak adostu.

13

Euskalduntzea

- * Euskalduntzeko plangintza orokorra adostu.

